



## Arartekoaren oharra, Legebiltzarrean otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren erreformarako lege-proiektua izapidetzen ari dela eta

### 1. Arartekoaren ekarpenaren helburua eta mugak

Ararteko erakundeak eskertzen du Eusko Legebiltzarrearen Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak egindako gonbita, bere iritzia eman dezan otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren erreformarako lege-proiektuaz.

Lehenik, hauxe ohartarazi nahi dut, iraganean ere honen antzeko egoeretan egin dudana bezalaxe: 3/1985 Legeak –Arartekoa sortu eta arautzekoak– erakunde honi administrazioen jarduerak ikuskatzeko eman dion erabateko eskumena eta gaitasuna zaintzeko asmoz, ez dagokio bere irizpena ematea lege-proiektuak izapidetzeko prozeduretan, legegintza-boterearen barruan eztabaida demokratikoaren mende jarritakoetan, ezta ere aztertzen ari den proiektuko alderdi batzuen gainean geroko jarreraren aurre-epaiketa ekar lezaketen ikuspuntuak adieraztea, izan ere, gero horien ezarpena fiskalizatu ahal izango du.

Behin hori esanda, erakundearen ohiko jardunean, Arartekoak gogoraraz dezake, lege-proiektu honen izapidetzea dela medio, erakunde honek zer jarrera eta doktrina finkatu dituen lege-erreformarako aztergai honetan, baita ere, oro har, pertsonen eskubideen arloan zer estandar hartu behar diren kontuan lege-erreformaren prozedura dela eta.

Horixe da, hain zuzen, idazki honen helburua; beraz, idazki honetan labur azalduko ditugu erakunde honek hartutako jarrerarik garrantzitsuenak –azken urteotan hainbat tresnatan (ebazpen, urteko txosten edo bestelakoetan) azpimarratutakoak– lege-proiektu honetan aztertzen diren gai batzuei buruz.

### 2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea erreformatzea: adostasuna sortzen duen eskaera

Lehendabizi, adieraz daiteke otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen erreformak, Eusko Jaurlaritzak proposatutakoak, **berdintasun arloan euskal esparru juridikoa eguneratzeko eskaerari erantzuten diola**. Eskaera horrekin bat datoz gizarte-sektore asko, eta eskaera hori zenbait aldiz egin du erakunde honek, batez ere emakumeek pairatzen duten indarkeria matxistaren aurrean, prebentzioa eta euskal administrazioek ematen duten arreta indartu eta hobetzeko beharrezkoa den lege-araudiari dagokionez.

**Zergatik eguneratu behar da 2021. urtean 2005ean ezarri zen berdintasun arloko euskal lege-esparrua?**



Erakunde honek azken urteotako txostenetan adierazi duenez, orain erreformatu nahi den legea 2005ean aldarrikatu zenetik, aldaketa esanguratsuak gertatu dira gizartean eta herritarren kontzientzian emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak indartzearen garrantziaz, benetan eta eraginkortasunez berdina izango den gizartea lortzeko. Aldaketa horiez gain, berrikuntza juridiko garrantzitsuak izan dira nazioartean eta Estatuan; horiek babesteko estandar berri zorrotzagoak finkatu dituzte, eta euskal administrazioek estandar horiek eraginkortasunez bete nahi badira, ezinbestean berariaz esku hartu behar du euskal legegileak, erakunde honen ustez. Horrek bereziki eragiten dio indarkeria matxistari eta gai hori berdintasunerako euskal lege baten baitan jorratzeari. Jorratze horixe da izapidetzen ari den erreformaren berrikuntza nagusia eta, horregatik, batzorde horri interesatuko litzaizkiokeen alderdiez adierazpen zehatzagorik ez dugunez gero, ohar hauetan arlo zehatz hori landuko dugu batik bat; horrek ez du galarazten, ordea, erakunde honi eska lekizkiokeen beste gai batzuek oharrak egitea.

Gainera, komenigarria litzateke helburu hori lortzeko legegintza-prozedura amaituz babesteko estandar berri horiekin koherentea izango den lege-estaldura berria ziurtatu ahal izatea. Horrekin batera, beren konpromisoa berritu beharko lukete emakumeen kontrako indarkeria arloan Euskadin indarrean dagoen koordinaziorako erakunde arteko hitzarmena sinatu zuten erakunde guztiek, beharrezkoa baita Europako, Estatu- eta Autonomia Erkidegoko esparru juridiko berrira eta gizarteko eskaera berrietara egokitzeko; eta oinarri sendoagoak eman beharko litzaizkioke, indarkeria matxistaren kontrako erakundeen arteko ezinbesteko koordinazioaren mesedetan.

### **3. Istanbulgo Hitzarmena eta genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituna**

Lehenik, funtsezkoa da Istanbulgo Hitzarmena aipatzea, baita ere nazioarteko tresna horrek dituen ondorioak estandar berriak finkatzeko, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak artatzeari dagokionez. Emakumearen kontrako indarkeria eta etxe barrukoa prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (2011n Istanbulen sinatua) (horregatik deritzo Istanbulgo Hitzarmena) 2014an berretsi zuen Espainiak; hitzarmen horrek zenbait ekintza-lerro ezarri zituen, Estatu guztiek arlo horretan bete behar dituztenak.

Genero-indarkeriaren kontrako Estatu-itunaren eragina ere aipatu behar da. 2017ko irailaren 21ean onartu zen Gorte Nagusietan, eta mugarri garrantzitsua lortu zuen emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten aurrera egiteko. Itun horrek adostasun politiko handia eragin zuen eta honako hau zuen helburu: Estatu- botere publiko guztiak eraginkortasun handiagoz konprometitzea emakumeek, emakume izate hutsagatik, jasaten duten indarkeria modu ororen kontrako borrokan. Aurrera egiteko oinarriak finkatu zituen, hainbat sektorek eskatutako neurrien bitartez eta Istanbulgo Hitzarmeneko xedapenekin bat etorritik. Itun horren ardatzak oso beharrezkoak diren gaien ingurukoak dira: sentsibilizatzea eta prebenitzea; erakundeen erantzuna hobetzea; biktimentzako laguntza hobetzea; adingabeak babestea, neska-mutikoak ere indarkeria mota horren zuzeneko biktimak baitira; gaien nahastuta dauden eragileen prestakuntza bultzatzea; gizarteak fenomeno hori hobeto ezagutzea; emakumeen kontrako beste



indarkeria-modu batzuk artatzea; eta konpromiso ekonomiko sendoa, helburu horiek lortzeko bidean egiaz aurrera egiteko.

- **“Biktima” kontzeptu zabaldua, prestazioak eta baliabideak eskuratu ahal izateko oinarri gisa**

Istanbulgo Hitzarmenetik eratortzen den “biktima” kontzeptua (Estatu-itunak ere babestu nahi duena) beste delitu batzuetara zabaltzen da abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren bitartez (Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoa), Zigor Kodean tipifikatutako genero-indarkeriazko delitutik harago. Delitu horietan, emakumeak era askotako indarkeria matxistaren biktimak izaten dira, emakume izate hutsagatik (emakumeen salerosketa, sexu-erasoak, behartutako ezkontzak, e.a.). Beraz, ezinbesteko parametro juridikoa da emakume horiengana bideratutako edozein neurri hartzeko orduan, eta Eusko Legebiltzarrak gogoan izan behar du lege-proiektu hau izapidetzean. Izan ere, beharrezko esparrua ezarri behar du euskal administrazioek eskaintzen dituzten arreta- eta babes-tresnak horrelako biktimei ere emateko, baita ere laguntza ekonomikoak, baliabideak, era askotako prestazioak (gizarte-zerbitzuak, zerbitzu espezializatuak, etxebizitza) eta ekintza positiboko beste neurri batzuk.

Gainera, Istanbulgo Hitzarmenak, 18.3 artikuluan eskatzen du *“genero-indarkeriaren biktimak babestea ez dadila egon biktimek lege-ekintzak baliatzearen edo egilearen kontra deklaratzaren mende”*. Xedapen horretatik ondorioztatzen da salaketa jartzen ez duten biktimei (eta beren seme-alabei) ere behar duten babes eta arreta guztia emateko agindua, ez salatzeak ez dezan murriztu –salatzen duten emakumeekin alderatuta- indarkeria matxista nozitzen duten emakumeentzako prestazioak eta baliabideak jasotzeko eskubidea.

Bi gaiok modu esanguratsuan taxutzen dituzte biktima guztiak osorik babesteari lege-estaldura emango dion euskal esparru arautzailerako erronkak.

- **Biktima izatea modu bateratuan egiaztatzea**

Orobat, Euskadin homologatu egin behar dira norbait indarkeria matxistaren biktima dela egiaztatzeko moduak (hitzarmenean proposaturiko zentzu zabal horretan), EAEn eskaintzen diren prestazioak eta baliabideak eskura ditzan. Erakunde honek gai hori zenbait aldiz benetako arazo edo oztopotzat antzeman du emakumeek prestazioak eta baliabideak jaso ahal izateko.

Abuztuaren 3ko genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurri buruzko 9/2018 Errege Lege Dekretua onartu zenean, itun hori zela medio 2017an onetsi ziren neurrietako batzuk bultzatu ziren, zeinak hainbat arlotan eragin zuten. Neurri horien artean azpimarratzekoa da, emakume biktimek prestazio publikoak jasotzeari dagokionez, titulu judizialak zehazteko gaia eta horrelako indarkeriaren biktima direnek egoera hori egiaztatzeko tresnak ugaritzea. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikulua aldatu zenetik, biktima-egoera egiaztatu ahal izango da ez bakarrik zigortzeko epai judizial, babes-agindu edo judizialki hartutako beste edozein kautela-neurriren bitartez eta



Ministerio Fiskalaren txostenaren bitartez, baizik eta baita ere gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimak hartzeko zerbitzuen txostenaren bitartez, eta, are gehiago, eskubideetarako edo baliabideetarako sarbidea arautzen duen sektoreko araudian aurreikusitako beste titulu batzuen bitartez.

Honatz Euskadin modu bateratuan landu behar den funtsezko gai bat: nola betearaziko den indarkeria matxistaren biktima gisa euskal gizarte-baliabide eta gizarte-prestazioetarako sarbidea xedatzen duen agindu hori. Berdintasunerako euskal lege-proiektu hori baliagarria izan daiteke, era berean, legezko oinarriak eta irizpideak finkatzeko, oro har izan arren, geroan biktima izatea egiaztatzeko garatzen diren tresna zehatzak antolatuz.

- **Ekintza positiboak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta beren seme-alabak babesteko**

Ekintza positiboek dagokionez, lehentasunezko gaitzat jotzen da Istanbulgo Hitzarmena bete dadin, ekintza positibo gehiago aurreikus daitezkeen emakume biktimak eta beren seme-alabak benetan babesteko. Diru-sarrerak bermatzeko errentari (DSBE) buruzko zenbait ebazpenetan Arartekoak iradoki du, adibidez, eskubide ekonomikoak baliarazteko baldintza bete ote den baloratzeko orduan, aintzat har dadila zer-nolako arriskua ekar dezakeen ordaindu gabeko mantenu-pentsioa ordainaraz dadin eskatzeak, baita ere irabazpidezko ondasunen sozietatea edo bi aldean jabetzako ondasun higiezin desegiteko eskatzeak, izan ere, emakume horiek oso egoera berezian bizi dira eta beraien erreklamazio judizialek arriskuan jar lezakete beren osotasuna. Emakume askorentzat gaindiezina den oztopo hori eragozten ari da indarkeria matxista jasaten duten emakumeek oinarritzko babesa izatea, hau da, DSBEa jasotzea.

Orobat, etxebizitza arloan, erakunde honek adierazi duenez, funtsezkoa da ekintza positiboko neurrietan sakontzea, emakume horiei eta beren seme-alabei erantzun azkar, eraginkor eta egokia bermatzeko, genero-indarkeriazko egoeretatik irteteak sor lekitzeko bizimodu-aldaketa gogorrei aurre egiteko.

Gai horri buruz, Arartekoak bi gomendio egin ditu 2020an. Testuinguru honetan aipatzea merezi dute, lege-erreforma horren arloan eragiten baitute:

Alde batetik, [Arartekoaren 2020ko urtarrilaren 10eko Ebazpena](#). Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio emakumeek pairatzen duten indarkeria matxista kontuan har dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izateko eduki ekonomikoko eskubide bat baliarazteko baldintza eta betebeharra interpretatzeko orduan, eta gizarte zerbitzuekin beharrezko koordinazio-neurriak aurreikus ditzala.

Bestetik, etxebizitza eskuratu ahal izateari dagokionez, [Arartekoaren 2020ko ekainaren 29ko Ebazpena](#) nabarmendu behar da. Bertan, Arartekoak haxe gomendatu dio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari: berriz azter dezala "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaera bat ukatu izana, epai judizialaren bitartez egiaztatu ondoren genero-indarkeriazko egoera bat bizi zela eta ezinezkoa zela familiaren etxebizitzan erasotzailearekin bizi zela.



Arartekoaren ustez, lehenetsunez ezarri behar da Istanbulgo Hitzarmenean barruko prozedura-arauez xedatutakoa, eta horren ondorioz hain zuzen, etxebizitza arloan jardun zuen administrazioak lehenetsi egin behar zuen tartean babes-agindu bat egotea bera, eta aintzat hartu behar zuen biktimak salatutako arau-haustea bere erasotzailearengandik dibortziatzea arautzen zuen hitzarmenean ezarritakoari buruz, interesdunaren etxebizitza-premiaren egiaztapena taxutzeko eta betetzat jotzeko orduan, hura “Etxebide” Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan inskribatu ahal izateko.

- **Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko Adituen Taldearen lehenbiziko txostena, hitzarmena ezartzeaz**

Istanbulgo Hitzarmena ezartzearen eraginkortasun maila dela eta, aipagarria da, halaber, 2020an Espainiako estatuari buruzko [lehen txostena](#), [Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko Adituen Taldeak egina](#); talde hori [Istanbulgo Hitzarmenak](#) sortu zuen. Lehenbiziko aldiz, nazioarteko erakunde batek zehatz-mehatz eta osorik ebaluatu ditu Espainiako estatuko genero-indarkeriari buruzko legeria eta politikak. Adituen Taldeak Espainiara egin zuen bisitan, Euskadira ere etorri zen; beraz, txosteneko edukiak garrantzizkoak dira emakumeak eta beren seme-alabak indarkeria matxistaren aurka artatzeko euskal lege-esparruak nolakoa izan behar duen aztertzeke garaian. Txostenean oso ontzat jotzen da bikote barruan genero-indarkeriaren kontra babesteko sistema, biktima ardatz nagusitzat hartzen duen ikuspegia duelako eta eragile eta erakundeen arteko lankidetzaz aurreikusten duelako. Hala ere, bikotetik kanpo emakumeen kontra burututako indarkeriari buruz, Taldeak hitzarmenaren ezarpen-maila aldakorra dela egiaztatu du autonomia erkidego batetik bestera.

Oro har (EAE barne dela) egiaztatu du berariazko zerbitzu gutxi daudela sexu-erasoa edo bortxaketa jasan duten biktimentzat, are gutxiago behartutako ezkontzak, genitalen mutilazioa, antzutzeta edo behartutako abortua pairatu duten biktimentzat.

Adituen Taldearen esanean, badira lehenetsunezko zenbait arlo Istanbulgo Hitzarmena erabat betetzeko:

- ✓ batez ere sekzio arteko diskriminazioaren mende dauden emakumeengan jartzea arreta;
- ✓ gaiarekin zerikusia duten profesionalen prestakuntza areagotzea;
- ✓ laguntza-zerbitzuak hobetzea, bere baitan har ditzaten emakumeek bikote barruan nozitutako indarkeriaz bestelako indarkeria-modu batzuk;
- ✓ biktimen segurtasuna hobetzea, babes-aginduak hobeto betez;
- ✓ diruz laguntzeko tresnak ezartzea, emakumeen GKEek laguntzeko zerbitzuak ematen aktiboki parte hartu ahal izan dezaten.

Erakunde honen iritziz, hobekuntza-arlo horiek guztiak funtsezko elementu estrategikotzat hartu behar dira aztertzen ari den lege-erreforman, indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta emakumeak eta beren seme-alabak artatzeko sistema indartzeko. Horrela, Euskadin nazioarteko estandar horietatik eratorritako eskakizunekin bat datorren erakunde-erantzuna eman ahal izango da.



#### **4. Indarkeriaren eta jazarpenaren aurka borrokatzea, EBko genero-berdintasunaren 2020-2025 aldirako estrategia berriko lehentasuna**

**EBko 2020-2025 aldirako genero-berdintasunerako estrategia berria** ere proposatzen da emakumeen kontrako indarkeriari amaiera emateko funtsezko helburuari heltzea, eta horretarako lehentasuntzat jotzea [Istanbulgo Hitzarmeneko](#) helburuak bete daitezzen ziurtatzea. Era berean, azpimarratu behar da EBk lehenetsi egingo duela lan arloko indarkeriaren eta sexu-jazarpenaren aurkako borroka sendotzea; horretarako, Batzordeak estatu kideei aurrerantzean ere eskatuko die berrets dezatela lan arloko indarkeriaren eta jazarpenaren kontra borrokatzeari buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen [Hitzarmena](#), ezar ditzatela sexu-jazarpenaren kontra langileak babesteko EBn indarrean dauden arauak, eta biztanleak horien gainean sentsibiliza ditzatela. Lehentasun hori kontuan hartu behar da, erakunde honen iritziz, Legebiltzarra izapidetzen ari den lege-proiektuaren barruan ere.

#### **5. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloetan prestakuntza ziurtatzea, genero-ikuspegia izango duen erakunde-erantzuna emateko beharrezko baldintza gisa**

Azken urteotan jasotako kexen argitan, erakunde honi kezka berezia sortzen dio honako gai honek: nola ziurtatu zerbitzu publikoen genero-ikuspegia genero-indarkeriazko egoerak kontatzen dituzten emakumeak artatzean. Zehazki, funtsezkoa da genero-ikuspegi hori ziurtatzea, oro har, udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuen jardunean, osasun arloan, hezkuntzan, zerbitzu espezializatuetan, enpleguan, etxebizitzan, eta abarretan, eta, bereziki, genero-indarkeria prebenitu, antzeman eta jorratzeari dagokionez, zerbitzuok era askotako laguntza bila joaten diren emakumeei ematen dieten arreta orokorrean.

Garrantzitsua da ziurtatzea erakundeek zenbait zerbitzuren bitartez ematen duten erantzunak hauxe bermatuko duela: edozein emakumerengan agian indarkeria matxista jasan izanaren zantzuak antzematen direnean, hark gutxienez aukera bat izango duela dauden zerbitzu espezializatuaren berri jakiteko, behar bezala orientatua edo bideratua izateko, horiek erabili ahal izan ditzan, hala badagokio. Euskal administrazioek ziurtatu behar dute ikuspegi hori ez dela galduko herritarrei ematen dieten arretan.

Horrela bada, gai horren inguruan azken urteotan jasotako kexen argitan, Arartekoari iruditzen zaio lege-proiektu horretan tresna eraginkorrak eman beharko lirartekeela emakumeak artatzean genero-ikuspegi hori bermatzeko.

- Euskal administrazioen zerbitzuko langile guztiei berdintasun arloko prestakuntza ziurtatuz.
- Zerbitzu horietako erabiltzaileak eta beren seme-alabak nozitu ditzaketen genero-indarkeriazko balizko egoerak prebenitzeko eta antzemateko gaitasuna ziurtatuz.
- Orientazio eta informazio egokia ziurtatuz, zerbitzuetan artatzen dituztenean, genero-indarkeriaren biktima direla dioten emakumeei edo horren biktima izan daitezkeelako



zantzuak dituztenei, beren eskubideei buruz; eta/edo, hala badagokio, emakume horiek behar bezalako arreta eman diezaieketen zerbitzu espezializatuetara bideratuz.

## 6. Genero-indarkeriaren eraginpean dauden haurrak babestea: genero-indarkeriaren biktima diren neskato-mutikoak

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena onartu zenetik, legez aitortzen da genero-indarkeriaren eraginpean dauden haurrak indarkeria horren biktimak direla (adjektibo osagarririk behar izan gabe) eta, beraz, biktimei ematen zaizkien arreta eta babesaren erabateko onuradunak izan behar dutela.

Erakunde honentzat ezinbestekoa da izapidetzen ari den lege-erreforman aitorten hori guztiz barneratzea, bere ondorio guztiekin. Horren ondorioz, genero-indarkeriaren eraginpean dauden seme-alabak zuzeneko biktimatzat hartuko dira, babestuak eta artatuak izateko prestazioak eta baliabideak onartuko zaizkie eta berariazko arreta jasoko dute indarkeria matxistagatik umezurtz geratu diren seme-alabek.

Horren haritik, Arartekoak egiaztatu ahal izan du, halaber, ez dagoela laguntzarik umezurtz horientzat. Genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat aitortzen badituzte ere, oraindik ez dira behar bezala garatu biktima gisa merezi duten laguntza gauzatzeko neurriak. 2019an horiek jasotzen dituzten umezurtz pentsioak hobetu ziren eta, egiaz, erakunde honek ikusi du gizarte-zerbitzuek erantzun egokia eman dietela, arreta psikologikoari dagokionez. Hala ere, beste arlo batzuetan, hala nola zerga arloan eta familiei sostengua emateko laguntzetan, ez da aintzat hartzen ez zertzelada hori -ezta salbuespen gisa ere-, ez haur horietaz arduratzen diren familiei sortzen zaizkien arazoak. Egoera horietan agerian jartzen da legezko estaldura behar dela, errealtate horri behar bezala erantzun ahal izateko beharrezko xedapenak jasoko dituen.

Orobat, [Kode Zibilaren](#) 156. artikulua erreformatuz, indartu egin da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeentzako babesa, izan ere, bereizi egin dira genero-indarkeriaren eraginpeko adingabeei ematen zaien laguntza psikologikoa eta guraso-ahala baliatzea; horren ondorioz, adingabe horiei arreta psikologikoa emateko, ez da beharrezkoa guraso erasotzailearen baimena. Xedapen horrek baldintzatu egin dezake, era berean, haur horiek artatzeko euskal zerbitzuak antolatzeko lege-esparrua.

Azkenik, haurren arloan, aipagarriak dira Arartekoak gogorarazi dituen jarraibideak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko printzipioen argitan, jarraibide horiek kontuan hartu behar dira genero-indarkeriaren prebentzioa, antzematea eta hori nozitzen duten neskato-mutikoekin esku hartzea hobetzeko. Jarraibide edo printzipio horiek ere oinarritzat hartu beharko liriateke izapidetzen ari den lege-erreforman:

- **Esku-hartzearen une eta eremu guztietan** haur guztien (12 urtetik beherakoak barne) **ahotsa eranstea**, beharrak zehaztetik beren lehentasunak kontuan hartzera bitartean. Osasuna (pediatrik), polizia (salaketa), lege-arloa (neurriak, FTP, etab.), gizarte zerbitzuak, eskola, etab.





- Haur eta nerabeekin harremanetan dauden **profesionalak prestatzea** ohiz beren bizietako eremuetan (eskola, pediatrak, etab.), jasandako indarkeriaren ondoreak "ikusten ikasi" eta hobe antzemateko.
- **Profesionalen eta sistema publikoen** (segurtasun-gorputzak, eskola, haurrentzako gizarte-zerbitzuak, emakumeentzako gizarte-zerbitzuak, fiskaltza...) **arteko informazio-eta komunikazio-kanalak hobetzea**.
- **Haurrentzako justizia lagunkoian** aurrerapausoak ematea, europar zuzentarauen ildotik eta delituaren biktimari buruzko estatutuaren legea garatzeak eskaintzen duen esparruan.
- Emakumeen arretarako gizarte-zerbitzuek eta babesik eza duten haurrentzako arretakoek **partekatzen dituzten esku-hartze proposamenak**, zerbitzuen arteko lankidetzaz edota koordinazio-lanaren gehieneko lekuko modura, ohiz erakunde berekoak baitira.
- **Eskubideak gatazkan dauden egoeratan** (gurasoen eskubideak vs haurren eskubideak lege-epairik ez dagoenean, salaketarik gabe eta bizikidetzaz mantenduz) erabakiak hartzeko, zuzenbideak irmoki eusten dituen **irizpideak partekatzea**.
- Indarkeria matxistaren biktima den haur eta nerabeen kopuruari buruzko errealitatea zehurtiaz zenbartzeko **datuak eta adierazleak jaso eta sistematizatzea**.
- Haurrek eta nerabeek indarkeria jasan ondoren, laguntza psikologikoa eskaintzeko eta kaltea lantzeko **esku-hartze terapeutikoa bermatzea**.
- Haur eta nerabeentzat **prebentziozko programak gehitzea**, bereziki, heziketa afektibo-sexualarekin eta harremanetan tratu onarekin zerikusia badute.

## 7. Zeintzuk dira, laburbilduz, erakunde honen ustez lege berri horretan jorratu beharreko erronka nagusiak?

Adierazitako estandarren eta oharren arabera, antolaketa-egitura eta administrazio nahiz zerbitzuen arteko koordinazio ezin hobea ziurtatzera eta areagotzera bideratu beharko litzateke erreforma hori, biktimak eraginkortasunez artatzeko, laguntzeko eta babesteko, gure administrazio publikoek esku hartzeko berezkoak dituzten arloetan.

Horrela, erakunde honen aburuz, lege-proiektu horrek edonolako indarkeria matxistaren biktimak artatzeko sistema zabaltzera bideratutako erantzuna eman behar du, kontzeptu horren baitan hartuta bai bikoteak, bikote ohiak edo familia barruko norbaitek burututako indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak, bai sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak.

Orobat, etorkizuneko legeak babes handiagoa eman behar die indarkeria matxistaren eraginpean bizi diren seme-alaba adingabeei eta mendeko beste pertsona batzuei. Horiek berariaz indarkeriaren biktimatzat hartu behar ditu, indarkeriatik bizirik atera diren pertsonatzat. Ildo horretan, berariazko babes-esparrua ezarri behar da indarkeria matxistaren ondorioz umezurtz geratu diren seme-alabentzat, eta biktimei erreparazio-eskubidea aitortu behar zaie.





Lege-proiektu horrek berdintasunaren arloan etengabeko eta nahitaezko prestakuntza ziurtatu behar die administrazio publikoetako langile guztiei, batez ere, emakumeen kontrako indarkeria matxistari erantzuteko lanean diharduten langileei.

Lege-esparru berri horrek agindu bat eman beharko luke euskal administrazioek indarkeria matxistaren biktimei laguntza ekonomikoak eta ekintza positiboak bermatzeko, baita ere bizi-autonomia ziurtatzeko baliabideak jaso ahal izatea, enplegurako neurriak hartuz, bereziki.

Bukatzeko, erreforma horrek zenbait tresna ezartzeko balio behar du, eraginkortasuna ziurta dadin honako eremu hauetan indarkeria matxista goiz antzemateko orduan: hezkuntza, osasuna, polizia, epailetza, lana eta gizartea.

2021eko martxoaren 24a